

Jon Irisarri, etapa berri baten hasieran





AURKIBIDEA

Iritzia Arrate Iturbe **3**

Erreportajea Mondejuaren sekretua

Rosi Goñiren eskutik **4-7**

Kontzientziaren Ibaia Agus Tena **8-9**

Asteko Gaia Jon Irisarriren

asmo berriak **10-17**

Iritzia Haritz Azurmendi **20**

Iritzia Maddi Dorronsoro **21**

Bertsoa Ixiar Altuna **22**

Agenda **23-25**

Elkarrizketa

Meliora musika taldea **26-28**



Azaleko irudia
Imanol Garcia Landa

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

bai erabiltzaile eta
lana eskatzen

3ikam

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





ARRATE ITURBE
ARNASTEN
IKASTEN

Ilusioz beteriko bidaiak

Honako lehen lerro hauek ere bidaia berri baten hasiera bezala bizi ditut. Sasi idazle moduan baten batek irakurriko ote dituen galdezka neure buruari, baina izenburuak dioen moduan ilusioz... Aurrera!

Bizitzan izan dudak bidaiarik intentsuena izan da hau. Etxetik mugitu ere egin gabe! Bai-bai! Horrelaxe diot, etxetik mugitu ere egin gabe! Amatasunaren bidaiak ari naiz bai. Ikaragarria bidaia, batzuetan beste galaxia batek xurgatu zaituela dirudi, baina munduak biratzen jarraitzen du. Bi urte ziztu-bizian pasa direla ohartu naiz aste honetan! Begien itxi-ireki batean! Nola da posible bi urte!

Atzoko eguna dirudi aste-bukaera «ero» horietarako mendirako motxila prestatzen nabilela, lagunekin joateko Pirinioetako mendi, baso zein txoko ezberdinen paisaiarekin bat egitera eta aske sentitzera, arau edota mugarik gabe. Bizitza besterik ez, irribarre eta ilusioz beteriko egunak!

Ametsetatik sortu ziren urrutira joateko bidaiak. Lagunartean, familian zein bakarrik, modalitate guztiak gustuko nituen. Bizikletan, oinez edota kamioi zaharren gainean. Atzokoak diruditen oroitzapen goxoak. Hangoa eta hemengoa ezagutu, usaindu, partekatu, ikasi, entzun... Pertsonak lagunak bilakatuz... Begiak erne eta irribarre ere prest!

Nire bidaiatzeko grina badakit nondik datorren... Txikitan hegazkinek laguntzailea izan nahi nuen, ondoren estereotipo eta arauen eraginez bertan behera

geratu zitzaidan amets hura, metro eta hirurogeita bost zentimetrotik ez nintzen pasa eta hortxe geratu nintzen ez atzera ez aurrera. Zenbat gustatzen zaidan hegan egitea!!

Ilusioz beteriko bidaia bakoitzak du bere xarma, azken bi urteek inguruko hainbat txoko eder ezagutzeko aukera eskaini dizkigute, inguruko baso, mendi zein

Amatasunaren bidaiak ari naiz. Ikaragarria bidaia, batzuetan beste galaxia batek xurgatu zaituela dirudi, baina munduak biratzen jarraitzen du.

erreka zidorrei esker mantendu gara ilusioarekin, ametsekin eta berriz ere mundua ezagutzeko gogoz. Baina kasu horretan aditza aldatuko nuke... Mundua ezagutu ordez zainduko bagenu ez litzake gutxi izango! Ruperrek bere kantan dioen moduan, «*zaindu maite duzun hori*».

Orain bizitzako bidaiak, han edo hemen, urruti edo gertu, familian edo lagunartean dituen momentuez gozatzeko aukera eman nahi diot nire semeari, baina gauza bat argi dut norberak erabakitzen duela nori eta zeri jarri *Bidaia* handienaren titulua. BIDAIA ON!

UDAZKENEKO GUTIZIAK

Urteko hirugarren urtaroa da udazkena, eta besteak beste, paisaiak hartzen duen koloreak bereizten du; uzta biltzeko urtaroa da, ereindako uzta edota naturak ematen duen uzta.

Eneritz Maiz Etxarri

Gorria, horia, berdea, marroia edo horien nahasketa da udazkeneko kolorea. Zuhaitzek behintzat esaten digute urtaror aldaketa iritsi dela, eta bide batez, uzten urtaroon ere sartu garela. Hego haize epelak ere orrazten du udazkena. Udaren osteko eta negurako prestatzeko izan ohi den urtaroa da.

Basoek udazken kolorea hartzen dute. Orbelak manta ederra jartzen die basoei neguaren aurretik, eta bertatik oinez dabilenak orbelaren soinu banda ederra izaten du lagun. Haizea lagun, hostoen dantzak ere ikus daitezke. Ez da basoan bakarrik, hiriko kale batzuk ere hostoz betetzen dira, zuhaitzek bi-

luzteko ohitura baitute udazkenean. Eta egunak, berriaz, laburtzeko joera hartuko du udako eguzki orduak gutxituz, eta ordu horiek ordainetan gauak irabaziko ditu. Hego haizea izan arren, tenperaturak beheranzko joera izaten du, eta udako arropak albo batera utzi eta hotzari aurre egiten hasteko prestatzen da batik bat armairua. Egurra eta sua. Tximinietatik kea.

Baina, armairuaz gain, etxe, elkarte eta jatetxeetako platerak ere udazken kolorea hartzen dute. Asko, sasoi honetan, lurak ematen dituen altxorak aurkitu nahian ibiltzen dira. Perretxiko edo, batez ere, onddo zaleek udazkena izaten dute horretarako garai ona.

Inork ez du esango non, baina guztiak galduko dira mendiko bazter ezberdinetan. Guztietan preziatuenetarikoa bat onddo beltza izan ohi da, eta dagoeneko puri-purian daude zenbait tokitan. Baso zabaletan, orbel artean,... eta saskia eskuan dabil jendea.

Jana eta edana

Garai honetan pintxodun azalaren barruan sortzen den marroi koloreko gaztainak ere ederrak izan daitezke jateko. Gaztaina egosiak edo erreak etxebizitzetako ohiko jatekoak izan ziren duela urte batzuk arte. Orain, aldiz, sarritan egun nabarmenetan baino ez dira jaten. Gabon usaina dutela ere esan daiteke gaztainek. Zenbait herritako kale bazterrek ere izaten dute gaztaina erre usaina. Gero eta gutxiago diren arren, saltzaileek kalean erre ohi dituzte herritarrei saltzeko. Euskaldunen artean gaztaina jatearen aitzakian familian edota lagunartean elkartzeko aitzakia ere bada gaztaina bera.

Gaztaina ez ezik, ezkurra ere udazkeneko fruitua da, eta basoak ezkur alez beteta daude. Eta ezkurra bezala, sagar urtea izaki sagardo asko ekoitziko da aurten, baina ez da sagardoa bakarrik, patxarana gustuko duenak ere, urte sasoi hau baliatu behar izaten du basora joan eta basararak biltzeko. Eta anisa tarteko, sei bat hilabetera-edo, gutxi gorabehera, edari alkoholoduna sortuko da.

Ereindako uzta biltzeko urtaroa ere bada. Artaso-

roek dagoeneko makina bat artaburu dituzte, artobizar marroiak agerian dituztela. Eta sarritan, hain gurea den Tolosako babarrunak izan ditzakete bueltan. Babarrunak biltzeko garaia edo bildu direnak eguzki izpien bila baserri ataritan ikus daitezke.

Neguko hotzari aurre egiteko prest izango dira babarrunak. Babarrunak berarekin sakramentuen festa; berarekin izaten du aza, esaterako, baina baita odolkia ere. San Martin egunaren bueltan txerri guztiei heltzen omen zaie bukaera, eta txerritik erator-tzen da odolkia. Babarruna ia baserri eta etxe guztietan hutsik egiten ez zuen elikagaia da; gosea kendu zuen elikagaia. Egun, ordea, behar bezala prestatzeko eskatzen duen denbora dela eta, askok egun jakinetan baino ez ditu jaten. Eta babarrun-jateak ere, kuadrillak elkartzeko erabiltzen dira.

Bukatzeko, eta oso zabaldua ez den arren, Goierri-ekin muga egiten duten eskualdeko herrietan, batik bat, mondejuak jateko ohitura dago. Zaldibian jatorria duen hestebeteak ardikiarekin egiten dira, eta mondejuaren bueltako otorduek ez dute hutsik egiten urte sasoi honetan. Amezketa, Ugarte edo Bedaion ere mondejuak jateko ohiturari eusten diote eta porru usaina duen jakia preziatua da jende askorentzat.

Azken batean, gaztaina, onddo, babarrun edo mondeju, mahaiaren bueltan elkartzeko aitzakia dira. Jatekoari, suaren epeltasuna gehituta.

ATARIAN jarrita Goierri
eta Urola Kostako
Hitza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.

«Porru asko behar du, ez dago beste sekreturik»

ROSI GOÑI
MONDEJUGILEA

Udazkenean, mondejuak egiteko ohitura handia izaten da; eskualdean ere badira ia bizi osoa lan horretan daramaten herritarrak; Rosi Goñi da horietako bat. Bedaion bizi den amezketarrak, errezeta honen sekretuak kontatu dizkigu.



Josu Artutxa Dorronsoro

Lau hamarkada baino gehiago daramatza Rosi Goñik (Amezketarra, 1955) mondejuak egiten. Amezketako Loidi baserrian sortua, amarengandik datorkio sukaldari sena, eta udazkeneko, porruak txikitzen, ardi tripak egosten eta hesteak betetzen aritzen da. Egun bakarrean, ia hamar kilo mondeju egitera iritsi izan da.

Noiz hasi zinen lehen mondejuak egiten?

Duela 40 urte baino gehiago. Lehenago, amak egiten zituen etxean; amonarengandik ikasi zuen. Tripak garbitzen zituen, eta ni begira egoten nintzen, nola egiten zuen ikasten. 24 bat urterekin, Bedaioara bizitzera etorri nintzenean, nire amaginarreba eta biok hasi ginen egiten. Hemen jada prozesu osoa egiten ikasi nuen.

Eta zergatik hasi zinen?

Familian ohitura handiko eginkizuna da, eta beraz, etxekoengandik jasotako irakaspen bat izan da. Erreleboa edo jarraipena naturala izan da, erabat zuzena. Orain nahi dudalako egiten dut, oso gustuko dudalako.

Noiz egiten dituzu mondejuak?

Irailetik azarora bitarte luzatzen da denboraldia, eta urtero, hilabete horietan aritzen naiz mondejuak egiten, batez ere, asteburuetan. Egun bakarrean, hiruzpalau lagun artean, zazpi-zortzi kilo egiten ditugu, goizean goiz hasita. Gehienetan, familiako senideen otordueta-rako egiten ditugu. Aurtengo Bedaioko festetan, hama-

sei bat lagun bildu ginen etxean, guztiak senitartekoak, eta horientzako egin nuen azkenekoz mondeju kopuru handiena.

Bestela, urri amaieran egin ohi den Bedaioko Azokarako prestatu izan ditut. 80 kilo saltzera ere heldu izan naiz azokan. Ikaragarri saltzen da, eta askok jaten duten jaki bat da; gainera, ez da urte osoan jaten, udazkenean bakarrik, eta beraz, kutixi bat da. Bedaioko elkarteko-entzat ere egiten nituen lehen, baina lan handia eskatzen zuen, kopuru handiak egin behar izaten nituelako. Hortaz, hori alde batera utzi nuen, eta orain, etxerako edo lagunentzat soilik egiten dut. Elkartean, adibidez, otorduren bat egin behar dugunean ere egiten ditut.

Ez dakienarentzat, zein da errezeta? Nola egiten dira mondejuak?

Lehenik, porrua eta tipula txikitu behar dira; tipula kopuru porru kopuruaren erdia izaten da gutxi gorabehera. Horiek su oso baxuan sueztitzen ditut, hiru bat orduz. Bitartean, ardien tripak egosten ditut, eta guztia sueztituta dagoenerako, tripak eta seboa txikituta izaten ditut; baita piper berdea ere. Ezinbestekoa ardien tripen eta seboaren kopuruak ondo zehaztea, horren arabera ezartzen baitira porruaren eta tipularen kopuruak. Gero, horiek gehitzen dizkiet barazkiei, eta su baxuan izaten ditut apur batean; ez da komeni denbora luzez eduki-



Rosi Gofi amezketarra. Bedaioko bere etxean, mondeju bat egin berritan. J.A.

ELKARRIZKETA

ordea, ez dizkie hainbeste sartzen. Zaporean alde handia izaten da tripa kopuruaren arabera. Barazki gehiago edo gutxiago bota, zaporea erabat aldatzen da; porru asko behar du, ez dago beste sekreturik. Nonbait tipula ere ez diote botatzen, beraz, modu ezberdinetara egiten da. Bestetik, ez diot sebo gehiegi nahasten; zaporea emateko beharrezkoa da, baina ez gehiegi. Azkenik, ardi saldatan egosteak ere bere garrantzia du.

Erraza da mondeju bat txarra ateratzea?

Nire ustez, ez. Kontuz ibili behar izaten da gauza askorekin. Neurriak oso ondo kontrolatuta ere, nahasketa noizbehinka probatu behar izaten da, mondejuaren zaporea ez baita guztien gustukoa. Hesteei gatz soberakina kentzea ere oso garrantzitsua da.

Nola lortzen dituzu ardi tripak eta seboa kantitate handitan?

Nire koinata batek hiltegia lan egiten zuen lehen. Hark ekartzen zizkidan tripak garbituta, zuri-zuri, baina erretiroa hartu zuen. Orain, gainera, ardi gutxi hiltzen dituzte hiltegieta; beraz, harategietan erosi behar izaten ditut. Bestela, anaiak ardiak hil behar dituela esaten didanean, aurrez tripak garbitzen dizkiegu. Harategietan ere tripa gutxi izaten dute, ia eskaririk izaten ez delako. Ardi tripak gutxi izaten dira, eta horiek garbitzeak, gainera, lan handia eskatzen du.

Hobe etxean egitea, harategietan erostea baino...

Harategi askotan, tripa gutxirekin saltzen dituzte mondejuak, eta beraz, kontuz ibili behar da. Ni ez naiz inoiz hara joango mondejuak erostera, baina jende askok egiten du hori. Horrez gain, jatetxe askotan dastatu daitekeen mondejua ez da bertakoek egindakoa izaten.

Transmisioa ziurtatuta al duzue mondejugileek?

Geroz eta jende gutxiago dago mondejuak egin nahi dituenen. Inork ez du horrelako lanik hartu nahi. Oso gustuko izan behar duzu, ezinezkoa edo oso zaila delako honetatik bakarrik bizitzea. Nire amak 90 urte ditu, eta oraindik ere mondejuak egiten ditu. Nire kasuan, gauza naizen artean, jarraitzeko asmoa dut, sukaldean aritzea gogoko dudalako.

tzea, seboari salda ateratzen baitzaio. Nik ez dut asko ateratzea nahi izaten, nahasketan ur gehiegi izaten delako bestela, eta gero arrautzak kalkulatzeko oso zaila izaten delako. Amaitzeko, hozten utzi eta kopuruaren arabera, bost edo sei dozena arrautza botatzen dizkiot.

Behin nahasketa prest dudanean, eskuz betetzen ditugu hesteak, aurrez egositakoak. Hesteak gazituta egoten dira, eta beratzen edukitzen ditut bete aurretik, urak gatza ken diezaion. Behin hesteak bete ondoren, ondo egosi behar izaten da mondejua, jan aurretik. Ardikiekin egindako saldatan egosten ditut, baina kontu handiarekin ibili behar da, mondejua ez lehertzeko.

Behin egindakoan, erraz kontserba daiteke?

Egin berritan jatekoa da berez. Nire kasuan, hozkailuan ez ditut saldatan izaten, lehorrean baizik, eta ez da komeni bost egun baino gehiago izatea bertan. Bestalde, izoztuz gero, lehortu egiten da, eta berez duen zaporea galtzen du.

Zer behar du mondeju on batek?

Ardi tripa batekin lau kilo mondeju egin ditzaket; askok,

IRAGARKI LABURRAK

NEGOZIO ESKU-ALDAKETA. Ile-apainketako negozioa eskualdatzen da. Baldintza onak. Tolosaldea bailaran.

Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 622 87 23 97.



**AGUS TENA
GONZALEZ**
PSIKOLOGOA

Zientzien zientzia

R. **D. Laing** psikiatra eskoziarrak zioen psikologia zientzien zientzia dela, esperientziaren zientzia delako, eta esperientzia nik zugandik esperimendatzen dudana eta zuk ez dakizuna eta zuk nigandik esperimendatzen duzuna eta nik ez dakidana bezala ulertzen zuen. Bestearen esperientzia esperimendatzeko ezintasunaz eta psikologia esperientziaren logo gisa hitz egiten zuen. Zientzia ahalegindu da, eta ahaleginak egiten jarraitzen ditu alde hori deuseztatzeko; hau da, elkarrengandik dugun esperientzia subjektiboa, ekintza-eremua sinplifikatzeko, baina bere aztergaiak kuantifikagarria, behagarria ez ezik, Laingek ematen dion zentzuko esperientzia ere sartzen dituen zientzia bat, berak dioen bezala, zientzien zientzia izango da.

Ezagutzak ezin du erdia alde batera utzi. Zientziei edo letrei buruz hitz egiten da, futbol-partida bati buruz hitz egingo bagenu bezala, eta talde baten parte izan beharko bagenu bezala, edo **Beatles** eta **Rolling** taldekoena, bat gustatzen bazazu bestea gustuko izatea baztertzea bezala. Ez dut bereizketa ulertzen, ez onartzen. Ez dut uste poesiarik gabeko zientziarik dagoenik, ezta zientziarik gabeko poesiarik. Mundu erdia aukeratu eta bestea


Psikologo naizen aldetik, ezinbestekoak iruditzen zaizkit zientziaren eta literaturaren ekarpenak

alde batera uztea da batetik edo bestetik dekantatzea.

Eskolan esaten ziguten zientziak eta letrak aukeratu behar genituela, bateraezinak zirela sinetsarazten ziguten, eta, gero, gure artean, galdetzen genion ea zientzietakoak edo letretakoak ginen, edo, are gehiago, batekoak edo bestekoak bezala definitzen gintuen, bi aukerak elkarrekin bizi ezin zituztela eta izaki demediatu bihurtu gintuztela esan ondoren.

Eskola oraindik gustatzen zitzaidanean, edo behintzat onartzen nuenean, Biologiako eta Gaztelaniako klaseak gustatzen zitzaizkidan gehien, bata zientzietakoa eta bestea letretakoa. Aukeratu behar izan nuenez, urteak igaro ondoren letraz definitu nintzen, besteak beste, Matematikak onartzen ez nituelako —baztertze hark uste nuen ezin zitzaizkidala gustatu gainerako zientzia-irakasgaiak. Zatiketa alde batera utzi nuenean, eta eremu horiek baztertzail-

tzat hartu ondoren, konturatu nintzen zientzia eta letrak beharrezkoak direla. Zientziak kontakizunean oinarritu behar du bere aurrerapenak helarazteko, **Darwinek** eta **Freudek** egin zuten bezala. Zientziaren eta letren bi adibide dira, eta haien lanek eta ekarpenek iraun egiten dute, bai zientziarekiko maitasunagatik, bai letrikiko maitasunagatik. Inork ezin du



esan *The origin of species* gaizki idatzita dagoenik, eta, jakina, Freuden ez dago poesiaren graziaz gozatzaren ez duen esaldirik.

Literatura zientzia iristen ez den eremuetara iristen da. Literatura, psikologia bezala, esperientziaren logoa da. Ez estatistikak ez saiakuntza kontrolatuek ez dute halakorik egiten. Ahots bakarrak (**Virginia Woolf** edo **Dostoyevski**, esaterako), jende asko hunkitzea lortzen dutenak, norberaren barnekoena transmitituz edo pentsamenduak bideratzeko moduak erakutsiz.

William Jamesek mentearen edo prozesu mentalen zientzia gisa definitzen zuen psikologia. Horri dagokionez, uste dut **Darwinek**, **Virginia Woolfek** eta Neurologiak ekarpen garrantzitsuak egin ditzaketela.

Hil ondoko artikulu batean, *Humphry Davy: poet of Chemistry*, **Oliver Sacksek** XIX. mendearen hasierako kimikari bat (XVIII. mendean jaioa) gogorarazten du, eta zientzia erromantiko baten garrantzia aipatzen du askotan, biografia alde batera uzten ez duen zientzia baten garrantzia, kasu pertsonalen atzetik datorren literaturarena. **Humphry Davy**, zientzialaria

izateaz gain, filosofo eta poeta ere izan zen, eta bere garaiko poeta garrantzitsuenen lagun, hala nola **Coleridge**, **Wordsworth** eta **Mary Shelley**. Royal Institutionen ematen zituen hitzaldietara bere lagun literatoak ere joaten ziren. **Coleridgek** zioen metaforak pilatuko zituela, eta **Sacksek** dioenez, **Mary Shelley** Frankenstein idazteko elektrizitate galbanikoari buruzko hitzaldi haietako batek inspiratu zuen.

Kultura zientifiko eta literarioen batasuna aldarrikatzen du **Sacksek**, eta bere heroi batzuen tradizioa aldarrikatzen du, hala nola **Darwin**, **Luria**, **Freud**, **James**. Zientziak alferrikakotzat jotzen du ezkontza hori, edo denbora galtzea, bere parametroekin bat ez datorrelako. Laburbilduz, banantzea begi estali batekin begiratzea dela uste dut, eta horren ondorio tristea da jende askok interesa galtzea munduko zati batean. Psikologo naizen aldetik, ezinbestekoak iruditzen zaizkit zientziaren eta literaturaren ekarpenak, eta hori da zutabe honen asmoa, Psikologiatik giza esperientziari buruzko bi ezagutza-tradizioei lekua egitea, beren tristura, poz, emozio, amets eta pentsamenduekin.

«Txirrindularitzak gehiago eman dit kendu baino»

JON IRISARRI

TXIRRINDULARI OHIA

Imanol Garcia Landa

Jon Irisarrik (Leaburu, 1995) txirrindulari izateari utzi dio, bost urtez Caja Rural-RGA talde profesionalen izan ondoren. Txirrindularitzarekin lotura izaten jarraitu nahi du, baina oraingoz errepideko bizikleta albo batera utziko du denbora batez.

Txirrindularitza uztea erabaki duzu. Zer dela-eta?

Erabaki zaila izan da, eta ez da momentu batekoa izan. Azkenean pixkana erabaki hori hartzeko nahia etorri zait. Jarraitzeko ilusioa galdu egin dut, eta txirrindularitza, beste kirol guztiak bezala, eta beste edozein lan bezala, ilusioarekin egin behar den zerbait da. Oso gogorra da, eta ilusioa behar da, eta nik hori galdu egin dut. Pixkana galtzen joan naiz, eta azkenik iritsi da une bat erabaki hau hartu behar izan dudala.

Beraz, luzez mamitzen joan den erabakia izan da.

Ez da erraz hartzeko erabaki bat, ondo pentsatu beharrekoa da, nire bizitza izan den zerbait da eta. Ez da urte honetako kontu bat, ezta aurrekoa ere. Urte-tik urtera eboluzio bat izan dut; nire lana izan da, nire bizitza, eta urtero erabakiak hartzen joaten zara. Azkenik iritsi da une bat bukaera ematea erabaki dudala.

Bosgarren urtea bete duzu aurten profesional bezala, eta diozun moduan, ilusio hori pixkana itzaltzen joan da.

Bost urte bada denbora txirrindularitza profesionala zer den probatu ahal izateko. Nahiz eta oso gogotsu hasi nintzen, ilusio handiarekin, ur-

tez urte ilusioa galtzen joan naiz. Bestalde, beste bizitza bat hasteko nahia ere hasi zait.

Caja Rural taldeak bazuen asmoa kontratua berri-tzeko?

Ni taldean oso gustura egon naiz bost urte hauetan, eta beraiek nirekin ere oso gustura zeunden. Kontratu berritu aurretik esan nien ez nuela jarraitu nahi. Beraiek erabakia ulertu dute. Jarraitu nahi izan banu, ez nuke arazorik izango. Beraien aldetik oso ondo portatu dira.

Nola bizitu duzu azken urte hau?

Denetariko momentuak izan dira. Momentu onak eta txarrak izan dira, denboraldi guztietan bezala. Hasiera batean ez nuen erabakita txirrindularitza uztea, eta urtero bezala hartu nuen, gogotsu eta ondo egiteko ilusioz. Urtea aurrera joan den heinean, konturatuz joan nintzen ez nuela ilusio bera, eta ez nuela gogorik beti bezala jarraitzeko. Bukaera bai izan dela berezia, beste urteekin alderatuta behintzat, utzi nahi nuela banekielako. Hasiera batean pentsatzen nuen denboraldia bukatuta hartuko nuela erabakiren

bat, baina aurretik gertatu zen: oso garbi izan nuen zer nahi nuen, eta orduan taldeari jakinarazi nion ez nuela jarraituko.

Urteari errepasoa eginez, Euskal Herriko Itzulian parte hartu ze-nuen, adibidez.

Nik uste dut Euskal Herriko Itzulia denboraldiko momentu onenetakoa zela. Sekulako ilusioarekin iristen nintzen, etxeko lasterketa zen,

«Urtea aurrera joan den heinean, konturatuz joan nintzen ez nuela ilusio bera, eta ez nuela gogorik beti bezala jarraitzeko»



Jon Irsari, bere herriko plazan. I.G.L.

niretzako urteko lasterketa garrantzitsuena, eta taldearentzat ere garrantzitsuenetakoa. Ez nuke esango beste urteetan baino bereziago bizitu nuenik, baina bai modu garrantzitsuan. Oso gogorra izaten da eta beti oso indartsu iritsi behar zara, ehuneko ehunean, lan on bat egiteko. World Tour mailako lasterketa bat da, World Tour taldeak daude, eta oso gogorra da. Niri denboraldiko sasoi puntu gorenetakoa bat hor izatea gustatzen zitzaidan, eta lan asko egin ondoren, gogoz eta bertan egoteko iristen nintzen. Momentu berezi bezala gogoratzen dut nire urte guztietan.

Taldearen beste hitzordu garrantzitsuan, Espainiako Vueltan, ez zinen egon.

Aurre-hautaketa batean egon nintzen Espainiako Vueltan parte hartzeko. Oraindik ez nion taldeari

esan; erabakia guztiz hartu gabe nuen, baina ordurako uztearena pixka bat pentsatuta baneukan. Baina denboraldiari bukaera on bat eman nahi nion eta ikusi Espainiako Vueltan nola sentitzen nintzen. Taldeak esan zidanean ez nintzela joango, pena eman zidan alde batetik horregatik. Urtero borrokatu nuen hor egoteko, taldeko guztiek nahi dute hor egon, eta ez da erraza gu bezalako talde batean Espainiako Vueltara joatea. Oso gogorra izaten da hautaketa eta lasterketa guztietan erakutsi behar duzu hor egon zaitzkeela, eta pena dezentekoa hartu nuen. Uste dut nire ibilbideari amaiera ona emango niola lasterketa hori eginik, baina oso zaila da bertan egotea, eta nahiz eta asko prestatu, ez ninduen taldeak aukeratu eta beste era batera bukatu nuen urtea.

Zer eman dizu txirrindularitzak?

Gauza asko eman dizkit. Nire bizitza izan da, ez bost urte hauetan bakarrik, baizik hamahiru urtetan. Infantil bigarren urtekoa nintzela hasi nintzen txirrindularitzan. Esan daiteke jubeniletatik aurrera nire bizitza ehuneko ehun txirrindularitza izan dela. Lana egiteko pertseberantzia eman dit, helburu baten aurrean lan asko egin behar izan dut beti, eta beti ez dira gauzak atera. Badakit galtzen ere, beraz. Lagun asko ere eman dizkit. Egia esan bizitzan orain ditudan gauza asko txirrindularitzagatik izan dira. Oso pozik nago eta harro, momentu honetan ni naizena eman dit, eta uste dut etorkizunera begira erabili ahalko ditudan gauza asko jorratu ditudala.

Eta zer kendu dizu?

Kirolari profesionala zarenean ehuneko ehunetan dedikatu behar zara zure kirolari. Nik ezin izan dut lagunekin denbora asko pasa, edo familiarekin oporretara joan. Ez ditut asteburuak libre izan, eta ezta beste gauza mordo bat ere. Urte askotan izan naiz pertsona bat ezin izan dituen beste askok egin izan dituztenak egin. Baina beste bizitza bat eman dit, eta uste dut gehiago eman didala kendu baino.

Momentu on bat nabarmenduko zenuke?

Egia esan momentu onena, bereziena edo politena izan zen profesioaletara igotzeko aukera izan nuen. Urte asko neramatzan txirrindularitzara dedikatzen amets horren bila, eta amets hori iritsi zenean niretzat oso berezia izan zen.

Eta momentu txar bat?

Urte bat oso txarra izan nuen, eroriko asko izan nituen. Eroriko batean saihestasun asko hautsi nituen, sei edo zazpi, ospitalean egon nintzen eta ebakuntza egin behar izan zidaten, eta hori oso momentu txarra izan zen. Momentu horrek ere erabaki honetara ekarri ninduen. Txirrindularitza nahiko kirol arriskutsua da eta horrelako momentu txar asko bizi izaten dira.

Nolakoa da txirrindulari profesionalaren bizitza?

Txirrindulari profesionala izateko ehuneko ehunetan txirrindularitzari dedikatu behar zara. Ezin duzu ezer egin txirrindularitzarako txarra dena. Denboral-

«Gaur egun lasterketa guztietan ihesaldia egitea ikaragarri kostatzen da, mundu guztiak ihesaldian sartu nahi du»



dian gaudenean ezin izaten dugu, adibidez, lagunekin padel jokatzera joan, ez lesionatzeko. Edo neskalagunarekin hondartzara joan. Hondartzara joatea txarra da, bertan eguzkia hartzen egonez edota hondarrean ibiliz nekatu egiten zarelako hurrengo eguneko entrenamendurako. Txirrindularitzan ga-

koa da egunero gauzak ondo egitea, eta gauza txiki asko ondo egiten dituzunean orduan helburuak lortzeko aukera duzu.

Nola izaten zen zure ohiko egun bat?

Normalean goizean entrenatu, arratsaldean ikasi edo zaindu, atsedean hartu, eta nire neska-la-



Jon Irizarri, erdian, aurtengo Euskal Herriko Itzuliko bigarren etapako ihesaldian. CAJA RURAL-RGA.

gunarekin, familiarekin eta lagunekin egon. Oso bizi-tza lasaia izaten zen, hori bai, gauza askori uko egi-nez. Normalean hilerio bi egun-edo izaten nituen bizi-kletarik gabekoak, eta beste egun guztietan entrena-mendua izaten nuen, gogorrak edo lasaia, baina bete beharrekoa. Eta horren arabera ere nutri-zionistak esaten zigun nola elikatu. Ni ez naiz izan nutrizioa muturrera eraman duena. Nahiko lasai egi-ten nituen gauzak, asko zainduz, baina lasai. Lehen bi urteetan gehiegi zaindu nintzen, eta kiloak galdu ni-tuen. Hor ikasi nuen ez zela ez gehiegi ez gutxiegi zaindu behar.

Lasterketek begira jarritz, etapak ere denetatik izan-go ziren, hau da, batzuk oso lehiatuak eta biziak. Beste batzuk, aspergarriak.

Txirrindularitza asko garatu da azken urteetan, eta asko bizitu dut garapen hori. Orain txirrindularitza modernoa deitzen zaio. Askoz lehiakorragoa den ki-rol bat bihurtzen ari da. Lehen ihesaldi bat egiten zen eta gero esprinterrak zituzten taldeak mugitzen zi-ren ihesaldia bertan behera uzteko. Gaur egun las-terketa guztietan ihesaldia egitea ikaragarri kosta-tzen da, mundu guztiak ihesaldian sartu nahi du, mendia irabazi, tarteko helmuga irabazi, edozein sari ona da talde batentzat. Txirrindulariak bere taldea-ren izena erakutsi behar du eta edozein sari ona iza-ten da. Horrek ere lasterketak are gogorrak izatea bihurtzen zuen, eta gero eta gehiago ikusten zen zein zegoen ondo eta zein gaizki. Kanpotik ematen du lasai goazela, baina barruan borroka asko izaten da aurrean egoteko, eta egun guztian tentsio batean egon behar zara.

Beraz, aspertzeko aukerarik ez.

Etapak bat edo beste izaten zen, baina nire oroitzape-na da nire lehenengo urteetan lasterketa aspergarri gehiago izaten zirela.

Beste aldaketa bat ere izan daiteke, egun dena neurtuago dagoela, taldeek txirrindularien datu asko erabiltzen dituztela?

Bai, geroz eta datu gehiago daude, eta aplikazio gehiago daude zuzendariak erabiltzeko. Aplikazioak daude esaten dizutenak lasterketan bertan haizeak nondik joko duen, desnibela nolako izango den, zer errepide mota izango duzun,... Nik uste dut horrek ekartzen duela gero eta lehiakorragoa izatea. Lehen Sky zenak eta orain Ineos denak, beti erabili izan du azken teknologia, eta orain beste talde asko ari dira teknologia hori erabiltzen. Talde bat duzunean eta ez duzunean irabazle bat, zerbait erakutsi behar duzu eta saiatu behintzat. Bestalde, ikusten da zen-bat txirrindulari gazte dauden gaur egun, jubenileta-tik profesionaletara pasa direnak. Eta horrek ere ekartzen du txirrindularitza lehiakorragoa izatea, gaztea zarenean gose gehiago duzulako. Askok alda-tu da azken bi-hiru urtetan, eta gehiago aldatuko da.

Txirrindularitzaren gogortasuna aipatu duzu lehen. Nola azalduko zenuke gogortasun hori?

Batetik, hemen ditugun neguak kontuan izan behar dira. Asteak 20-25 orduko entrenamenduak bete be-

ASTEKO GAIA



har izaten dira, bai edo bai. Nahiz eta urte hasieran gimnasio pixka bat sartu, entrenatu beharra dugu, eta eguraldi txarra badago ere lasterketan atera behar dugu. Ia egunero entrenatu behar izaten da, ez daude asteburu libreak. Horrez gain, denbora asko etxetik kanpo pasa behar dugu eta gero lasterketak sufrimendu askokoak izaten dira. Lehiakorrakoak izanik, lasterketak gogorrakoak egiten dira. Kirol asko daude gogorak direnak, baina txirrindularitza ere oso gogorra da.

Nire kasuan eroriko dezente izan ditut, eta horrek gogortasun maila igo egiten du. Uste dut bi txirrindulari mota daudela. Batzuk dira beldurrik ez dutenak, eta besteak beldurra izan dugunak. Niri askotan galdetu izan didate zergatik ez nintzen esprintetan sartzen, berez azkarra nintzelako. Nik beldurra neukan, eta tropelean esprinteraren zoazenean eta beldur hori duzunean, ez zara sartzen. Batzuk ez dute beldurrik erortzeko, baina zuk beldur hori baduzu frenatu egiten duzu eta ez zara sartuko. Nik ikusi nuen hori gertatzen zitzaidala. Taldeak baino, zuk zeure buruari sartzen diotzun presio horrek asko egiten du.

Taldeka zenbait sari irabazten dira, baina batez ere sariak indibidualak izaten dira. Halere, talde lana garrantzitsua izaten da, ezta?

Txirrindularitza egin ez duen batentzat oso zaila da ikustea zer garrantzitsua den talde lana. Txirrindulari batek irabaz dezake, baina askoz zailagoa du ez badu talde on bat izaten. Oso txirrindulari ona bazara, baina asko kostatzen bazaizu mendate batean ondo kokatuta hastera, talde bat oso aurrera eramango zaituena izan dezakezu, eta horrela ez duzu asko arriskatuko. Talde lana oso garrantzitsua da txirrindularitzan, eta talde on bat baduzu asko laguntzen du. Taldean asko baloratzen da talde lana egiten duena, eta gero beti ematen zaizkio bere aukerak. Eta gainera lider on bat baduzu eta konfiantza baduzu lider horretan eta zurekin ondo eramaten bada, gozamina da berarentzako lanean egotea. Zure lana

ondo egiten baduzu, zuk zure satisfazioa eramaten duzu, eta taldea oso pozik dago zurekin, eta lider horrek zerbait lortzen badu, zer esanik ez.

Zuri gehiagotan tokatu zaizu talde lana egitea, lider izatea baino.

Bai, nik beti izan dut taldean norbait ni baino hobeto ibili izan dena. Askotan tokatzen zitzaidan berari laguntzea, eta gustura egiten nuen zerbait izaten zen. Badakizu askotan ezin duzula postu on bat lortu eta badakizu zerbait ona egin dezakezula, hau da, taldekidearentzako lana egitea. Eta gu giro oso ona izan dugu, eta zure laguna den batentzat lana egitea gustu bat da.

Zaleek ere bere garrantzia dute. Gertutasun handia izaten da zaleekin, batez ere mendateetan.

Euskal Herriko Itzulia batez ere zaleengatik gogoratuko dudan lasterketa bat izango da. Etxean parte hartzen nuen, eta nire neska, nire familia eta lagunak zeuden ikusten; baina karreran sufritzen zoazen momentu horretan eta zure ize-na builaka esaten ari direnean, errepidearen ertzak jendez beteta, nahiz eta sufritzen joan, sufrimendu on bat bihurtzen da. Ez dago deskribatzerik zer be-

rezia den. Zortea izan dut horrelako gauza bat bizi izan dudalako.

Kuadrillakoak pankarta eta guzti ibiltzen ziren, bieziz erabiliz, Mou eta Leaburuko Purito. Nondik datoz?

Kuadrillan betidanik Mou deitu izan didate, txikitatik egia esan, eta nire kuadrillako ezizena da. Leaburuko Puritori dagokionez, lehen bazen txirrindulari bat Purito ezizena zuena. Niri asko gustatzen zitzaidan, eta kuadrillakoek beraren izena jarri zidaten.

Unai Iribar ibartarra datorren urtean profesional bezala ariko da. Aholkuren bat berarentzako?

Emango niokeen aholku garrantzitsuena bere lekua bilatzen saiatzea izango litzateke. Gauza guztietan bezala, taldean zure lekua bilatzen jakin behar duzu. Ni esprinterra banaiz, hori bultzatzen saiatu behar naiz, eta ez eskalatzailea izaten. Nire azkeneko bi ur-

«[Zaleen animoak]
Ez dago deskribatzerik
zer berezia den.
Zortea izan dut
horrelako gauza bat
bizi izan dudalako»

teetan konturatu nintzen, nahiko azkarra izanik, ona nintzela ihesaldiak harrapatzen. Eta hori entrenatzen saiatu nintzen eta asko hobeto nuen, eta gero gozatu egiten nuen hori ondo egiten. Beraz, hori esango nioke, bera ona den hori bultzatzeko, eta bere lekua bilatzeko tropelean. Hobe da gauza bat ondo egitea, asko erdipurdi baino.

Dagoeneko guztiz utzita duzu txirrindularitza, edo probaren bat falta zaizu?

Orain dela hilabete bat bukatu nuen. Goierri eskolan hasi behar nuen ikasten, goi mailako ikasketa bat ikasten hasi naiz, eta goizago bukatu nuen denboraldia.

Beraz, egunerokotasuna aldatu zaizu guztiz.

Bai, aspaldidanik nahi nuen goi mailako bat ikasi Goierriin, eta ikusi nuen hau zela momentua. Hartu egin ninduten, eta oso gustura nabil bertan ikasten. Horrez gain, nire osabak-eta sagarrondoak dituzte, eta arratsaldetan beraiei laguntzera joaten naiz. Nire neska-lagunarekin zinemara joateko, lagunekin padelean jokatzeko,... lehen egin ezin nituen mila gauza egiteko aprobetxatzen dut. Usabal kiroldegian eta Laskorain Ikastolan praktikak egiten hasi naiz ere: kiroleko goi maila ikasita dut eta praktikak egitea gertatzen zitzaidan. Egia esan, bizitza nahiko okupatuta daukat, lehen egin ezin izaten nituen gauzak eginez.

Sare sozialetan kafearekiko afizio handia duzula erakutsi duzu. Etorkizunean lanbidea alor horretara bideratuko duzu?

Ez, kafea nire hobya da. Ikastaroak egin izan ditut, barista bezala ikasteko, eta egia esan asko gustatzen zaidan gauza bat da. Txirrindularitzan asko lagundu izan didan hobby bat izan da. Txirrindularia nintzenean kafeari denbora dedikatu ahal izaten nion eta asko disfrutatzen nuen egunerokotasunean. Orain ezin dut jarraitu ikastaroak egiten, baina beti jarraituko dut kafearen munduari lotuta. Ez dut uste horretara dedikatu naizenik, oraingoz behintzat. Nahia-go dut hobby bezala jarraitzea, eta daukadan harreman hori ez galtzea lana bilakatu gabe.

Zer lotura izango duzu txirrindularitzarekin hemendik aurrera?



Lanbide bezala, behintzat, orain ez dut ezer buruan. Fabrikazio mekanizatua ikasten ari naiz, hori gustatzen zait, eta bertara dedikatzen irudikatzen dut neurere burua. Txirrindularitzari dagokionez, bai gustatuko litzaidakeela Oria Txirrindulari Eskolari laguntzea. Beraiek izan dira lehenengo urteetan lagundu nindutenak. Eta Caja Rural taldearekin lasterketa batzuk zuzendari bezala egin ahal izango banitu afizionatu mailan, gustura ariko nintzateke. Txirrindularitza beti gustatuko zaidan zerbait izango da, eta beti nahiko dut loturaren bat izan. Nire lehengusua ere txirrindularia da, kadetea da orain, eta berarekin lasterketetara joanez ere jarraituko dut mundu horretan.



Txirrindulari ohia leaburuarra, aurtengo denboraldiaren hasieran. **CAJA RURAL-RGA**

Eta orain nola begiratzen diozu bizikletari?

Une honetan ez naiz bizikletan ibiltzen, eta oraingoz ez dut asmorik ibiltzeko. Hemendik pare bat hilabetera atera nahi badut bizikletarekin, aterako naiz, baina gogo hori izan nahi dut ateratzeko. Urte asko pasa ditut bizikleta gainean, ez dakit guztira zenbat kilometro izango ziren, baina asko direla seguru, eta orain nahia-go dut beste kirol batzuetan ibili bizikletan baino. Badakit gogoia etorriko zaidala bizikletan ibiltzeko, eta aterako naizela, baina orain horretaz pixka bat ahazteko gogoia dut. Bestalde, mendiko bizikleta gustatzen zait, eta gehiago aterako naiz errepidekoan baino. Errepidekoarekin atseden luze bat hartu nahi dut.

MOTZEAN

Txirrindularia? Mark Cavendish.

Txirrindulari ohia? Miguel Indurain.

Egun bateko proba? Nik parte hartutakoa, Donostiako Klasikoa. Parte hartu nahi baina ez dudana lortu, Milan-San Remo.

Itzulia? Euskal Herriko Itzulia. Egin nahi izango nukeena, Frantziako Tourra.

Mendatea. Andazarrate, askotan igo dut.

Bizikletan ibiltzeko herrialdea? Euskal Herria, etxea delako. Beste bat, Portugal, beti gustatu izan zait bertara joatea.

Zaleak? Euskal zaleak, noski. Beste bat esatea zailagoa da, baina bat esatekotan, Frantziakoa esango nuke, han asko jarraitzen da txirrindularitza.

Entrenatzeko ibilbidea? Kostako buelta deitzen dioguna. Nire Instagramen sartuz gero, bideo bat badut, nire gustuko ibilbidea jartzen duena. Getariatik pasatzen da, ikaragarri gustatzen zaidan herria, eta Zarautzik ere bai. Eta gero, Berastegira joaten naizena, hori ere asko gustatzen zait.

Entrenatzeko musikarik erabiltzen zenuen?

Zein? Ez dago baimenduta, baina nik jartzen nituen, eta multa batzuk jaso ere bai. Baina tarteka egin beharra zegoen, luzeegiak ziren entrenamenduetan. Eta musikari dagokionez, barietate handia entzuten dut. Bat aukeratzekotan Ska-P izango zen.

Arrabola esan eta zer datorkizu burura? Uste dut txirrindulari guztiei burura etortzen zaiena, konfinamendua. Uste dut ez dudala berriro erabiliko.

Udako argazki lehiaketa irabazleak



Surma tribuko umea
(Etiopia)

Fernando Rojo



'Opari Bonu Orlegia'

Bi pertsonarentzako bi gaueko
egonaldia:

logela eta gosariekin, edo apartamentuan
Nekatur Nekazalturismo Elkartearen eskutik
www.nekatur.net • 943 32 70 90

Epaimahaiaren saria



Ilunabarra
Leire Mugica



bi pertsonarentzako otordu bat
Bidania-Goiazko Bailara jatetxean

iriartejauregia.com - Eliza Bailara, 8. Bidania-Goiatz. -
943681234

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



Nork ireki du arrastoa?
Irantzu Urkola



Begira
Jon Dorronsoro



Lixoneren bi saski zozkatuko dira.

cosmenticalixone.com
Ibaiondo industrigunea, 11. Aduna. - 943691280

Atarikide-en saria

Lokazti horietan



**HARITZ
AZURMENDI
IRAKURLEA**

Alemaniano integrazio kurtso bat egitea ere tokatu zitzaidan niri duela urte eta erdi edo, hara iritsi eta zero aleman zekiten beste zenbait etorkinekin batera. Aurreneko klaseetan norbera nongoa zen eta horrelako gauzak hitz egiten ari ginela, kontu curioso bat ateratzen klasean. Etorkinak Alemanian integratzea zenez ikastaroaren asmoa, kultura alemaneko gauzak ere agertzen ziren tarteka eta horietako bat aurkeztean esan zuen irakasleak, harrotasun punttu bat gorde gabe: «Beste herrialde batzuetan arraroa izango da, baina gure herrialdearen eta bertakoon izena ez dago batere finkatuta: guk gure buruari *deutsch* esaten diogu, herrialdeari *Deutschland*, baina dakizueenez, ingelesez *Germany* eta *german* gara. Italiaraz *Germania* da lurraldea, baina hizkuntzari *tedesco* deitzen diote eta biztanleei *tedeschi*».

Ez nintzen azaltzen hasi gure vasco eta euskaldun eta euskalherritar eta vasconia eta vascongades eta istoriak ze nahikoa lan banuen hasiera hartan klasea jarraitze hutsarekin. Baina nire kolkorako pentsatu nuen hain harrigarria ez dela izango izen desberdinak hartzea izendatzailearen arabera. Ez zirela hain berezi izango, alegia. (Badute euren buruaz hizketan gustura aritzeko fama alemanek).

Hor geratu zen kontua harik eta duela gutxi Facebooken sartu nintzen arte. Bai, Facebook deitzen diogun lokazti arraro horretan, spam-a gora eta 50 urteko krisia gainditzeko coaching-a bera dabiltzan lagunen zera hori. Ze aurkikuntza han! Facebookek dauzkan taldeen artean bazegoen *Tolosakoak* izeneko bat. Beste bat zeukan aldamenean, *Tolosarras*. Gero beste bat, Tolosako Reich areagotua irudikatuz edo, *Tolosarras y Tolosaldearras*, latza. Faltan bota nuen beste bat *Beterri* izen antzinakoarekin, kontua borobiltzeko, baina *Integrationkurseko* lezioa etorri zitzaidan hala ere.

Gure eskualdeko zibernazio horren soziologia txiki bat egitera sartu nintzen hurrena eta ene... Mezu moralista ugari, iruzkin atseginak ez gutxi, otsaila baino motzagoa den jendea pentsatu gabe idazten, komentario protonaziren bat, *La Ruleta de la Suerte*-n Tolosako babarruna agertu dela eta pozkario abertzalea, gazte arduragabe horien kontrako mezuak... Beste leku guztietan adina alde eta kalte. Oso pozik geratu nintzen aurkikuntzarekin, hurrena norbait (neure burua) eskualdea burbuila aurrerakoi-ekologista-euskaltzale-guay bat dela pentsatuz harrapatzen badut badaukadalako zer erakutsi haizeak jaisteko.

Horregatik agian estimatuko dut eskualde hau pixka bat. Eta Facebook eta bere fauna ere bai.

**Oso pozik
geratu nintzen
aurkikuntzare-
kin, hurrena
norbait
(neure burua)
eskualdea
burbuila
aurrerakoi-
ekologista-
euskaltzale-
guay bat dela
pentsatuz
harrapatzen
badut
badaukadalako
zer erakutsi
haizeak
jaisteko**



**MADDI
DORRONSORO
OLAMUSU**
ANTROPOLOGOA

Aldaketa eta ‘betikoriez’

Hau beti horrela izan da» entzuten dudak bakoitzean ile zuri berri bat ateratzen zait eta zoritxarrez, nahiko nukeena baino urdinduagoa dut kalparrara. Ezer ez da inoiz inolako modutan izan. Dena etengabeko aldaketen fruitu da.

Egia da aldaketa batzuk besteak baino errazago onartzen ditugula. Adibide erraz bat, gutxik ukatuko lukete zuhaitz gehienak berdetik horizontara pasatzen ez direnik urtaroak igaro ahala. Bestalde, nabaria da gu geu ere ez garela duela bi urteko berak, ez itxuraz

dagoela aldaketarik gabeko tradizioz, are gehiago, tradizioek eta tradizioak aldatzeko beharra dutela biziraungo badute. Ez hori bakarrik, tradizioak gure bizi-ziklotik eta esperientziatik haratago doazela. Beraz, guk nabaritu ez izanak ez du esan nahi aldaketarik izan ez denik, eta aldi berean, gure premiak aseta egotea ez da aldaketarako behar faltaren seinale.

Galdera zera da orduan: Zergatik gotortzen dira batzuk betikotasunaren izenean? Ez al dira jabetzen gauzak *betiko moduan* eta *inoiz aldatu gabeak* balira gaur egungoa ez litzatekeela den bezalakoa izango? Badakit aldaketak sortzen duen zalantza eta ziurgabetasuna ez direla atseginak, baina agian zentzu ho-

**Ezer ez da inoiz inolako modutan izan.
Dena etengabeko aldaketen fruitu da.**

ez iritziz. Baina gauzak horren argi ikusi eta onartzea zailagoa da beste kasu batzuetan. Ohitura, tradizio, balio eta orokorrean, gizartearen aldaketez ari garenean kopeta belzten dute askok eta betikotasunaren argumentu famatuaren atzean gordetzen dira.

Antropologoa naiz ofizioz (eta *pelma* afizioz), beraz sarritan topatu eta kudeatu behar izaten ditut halakoak. Ikertzaile lanetan nabil azkenaldian eta elkarriketa asko egiten ditut gaur egun sustraituta ditugun ohitura batzuk iraganean nola ziren ezagutzeko. Hizketaldi bakoitzarekin garbiago iruditzen zait ez

rretan deserosoago bizitzen ikasi behar dugu. Ez naiz lehena kontu hauetaz hausnarrean, ez nator originaltasunaren bandera astintzera, ziurrenik goizean hamaika aldiz jo duen iratzargailuarekin baino nazkatuago gaude gai honekin, eta orain nik esan dudalako ez zaio eztabaidari amaiera emango. Halere, ederra litzateke betikotasunak (edo *betikokeriak* agian) alde batera utziko bagenitu, gauzak nondik eta zergatik etorri diren ulertzeko saiakera handixeagoa egingo bagenu, hala, nora eta nola joan nahi dugun jakin dezagun.



IXIAR ALTUNA
HARITUZ-EKO KIDEA

Urte guztian jarrai dezan

Doinua Etaren su etenetik

Zuhaitzetik jausten diren
hosto dantzarien balsa,
hegok haize ondorengo
hodei beltzen euri jasa.
Udako landareetatik
biluzten doan baratza,
arto, babarrun, intxaurrak,
gaztain edo kalabaza,
ehiztarien tiro hotsak
zein uso taldeen pasa
urtaroa bihurtzen da
eder bezain aberatsa
ta paisaia zoragarri
baten koloreen dantza.



AGENDA

ERAKUSKETAK



ONDAR, HARRI TA ZERUA

Oskar Tena Gonzalezen erakusketa. Artistaren bakarkako lehen erakusketa, zirriborro mordo baten pusketak, detaileak eta laginak.

Urriaren 24a arte.

Tolosa, 3 taberna



TOLOSAN, KORONABIRUSAREN HILABETETAN

2021eko udaberrian kultur etxeko argazki tailerrean egindako lan batzuen erakusketa. Ana Pradini, Ane Uriarte, Carmen Tapia, Feli Izagirre, Fernando Pradini, Francisco García, Haizea Docherty, Ziggy Docherty, Idoia Sanchez, Jexux Arin, Jon Mintegiaga, Juanan Dorronsoro, Maddi Labayen eta Pablo Artetxe.

Tailerraren arduraduna Iñigo Royo izan da. Urriaren 30a arte.

Tolosa, Aranburu jauregia.

OSTIRALA URRIAK 8

ALEGIA

ERREKA GARBITZEA

Alegiako Udalak hondakinen pila-
ketak prebenitzeko proiektua du
martxan jarrita, eta sentibiliza-
ziorako ekimenaren barruan, osti-
ralean, Alegiako Herri Eskolako
ikasleek erreka garbituko dute
Urzain taldeak dinamizatuta.

IKAZTEGIETA

ERRETRATU NOMADA

10:00-13:00 / 16:00-20:00.

Nomad Studioko Eli eta Carlosek
Ikaztegieta bisitatuko dute, herri-
tarrei erretratuak ateratzeko.
Ilgandea bitarte, plazan.

TOLOSA

HITZALDIA

18:00. Kangune enpresarekin lan-
kidetzan, txakurren jabeen eta
gainerako herritarren arteko bizi-
kidetza sustatzeko hitzaldia. Tx-
akurren jabe diren pertsonen
zuzenduta. Kultur etxeko areto
nagusian.

BERAZUBIKO FESTAK

20:00. Tolosako musika bandaren
kontzertua.

Ondoren. Herri afaria eta kara-
okea.

DANTZA IKUSKIZUNA

20:30. Kenophobia - Osa + Mu-
jika. Obra, jendez beteriko festa
handi batekin hasten da. Berehala
ospakizunaren amaiera iritsiko da
eta jendea joan egingo da, espa-
zioa zeharo hutsik geratu arte.
Hutsunea gonbidatuen hezurre-
taraino sartuko da, bakardadea
eta beldurra sortuz. Bakardade
honetatik abiatuz, pertsonaia ba-
koitzaren ezegonkortasun emo-
zionala islatuko da. Dantzari
bakoitzaren ahulezia eta beldur
hauek erabiliko ditugu, amaieran
ikusleari mezu positibo bat helar-
razteko helburuarekin. Leidor an-
tzokian.

KONTZERTUA

22:00. Oki Moki Bonberenean
izango da. Sarrerak 8 euroko kos-
tua du.

TOLOSALDEA

ITZALALDI MASIBOA

22:00-22:30. Itzalaldi masibo eta
kazerola-jotzea. Argindarraren
prezioaren etengabeko igoera sa-
latzeko, eta *Deskonektatu elektri-
ketatik!* lemapean, itzalaldi
elektriko masiboa deitu dute
urriaren 8rako, 22:00etatik
22:30etara. Itzalaldia ez ezik, ka-
zerola jotzea ere deitu dute.

LARUNBATA URRIAK 9

ALKIZA

GRAP-HIK!

10:00-20:00. Paper tailerra, Juan
Barbé maisuarekin. Paper-tailerra
landaretik abiatuta paper-orriak
egitean datza. Tailerrean zehar

paper-prozesu osoa urratsez
urrats ikusiko dute, orrira iritsi
arte. Matrikula 70 euro. Izen-ema-
tea: mail@urmara.com.

ANOETA

XIV. EUSKAL JAIA

Harri Bidea. Herriko mugarriak eta
harri-ondarea lotzen dituen ibilbi-
dea.

08:30. Ibilaldi luzea (16 km).

10:30. Umeekin egiteko moduko
ibilaldia.

BIDANIA-GOITZ

UDAZKENEAN, KULTURA KALEAN

20:00. Bidaniako Kontsejuko ar-
duradunek antolatuta. *El Txou de
Patxi*, Gorka Aginagalderekin baka-
rriketa umoretsua.

TOLOSA

TRIKITIXAREN XVIII.

JARDUNALDIAK

12:00-13:30. Hitzaldia. Erromeria.
Aiko taldea, Sabin Bikandi eta
Patxi Laborda.



Galtzaundi

Asteazken iluntzean Tolosako Aranburu jauregian
"Galtzaundi aldizkariak 30 urte" erakusketaren
inaugurazio ekitaldia egin zuten. Erakusketa ikusgai
egongo da urriaren 23a bitarte. J. ARTUTXA

AGENDA

16:30-18:00. Mahai ingurua. Aritz Ibañezek moderatuta eta Xabier Etxabe, Xabier Itçaina eta Joseba Altuberen parte hartzearekin. Kultur etxean.

BERAZUBIKO FESTAK

10:00. Umeentzako sukaldaritza tailerra, Basque Culinary Center-eko ikasleek eskainita. Izena emateko: 688 74 01 63.

12:00. Toka lehiaketa.

16:30. Umeentzako jolasak.

19:30 eta 23:00. Titanes show orkestra.

23:00. Su artifizialak.

KULTURA PLAZARA

18:00. Buruhandiak eta erraldoiak. Sarrerak Kulturaplazara.eus helbidetan eskuragarri.

KONTZERTUA

22:00. Cobra Bonberenean izango da.

IGANDEA URRIAK 10

ANOETA

XIV. EUSKAL JAI EGUNA

10:00-14:00. Baserritar eta artisauen azoka.

12:00. Ekitaldia.

Ondoren. Ardo dastaketa.

14:00. Bazkaria (etxetik eramanda).

18:00. Binakako pentatloia. Lucia Orbe eta Iñaki Errazkin vs. Zelai III eta Zelai V.

TOLOSA

ASTE KULTURALA

San Esteban auzoko XXXIII. Aste Kulturala. Mendi ibilaldia.

BERAZUBIKO FESTAK

11:00. Txapela jarutiketa txapelketa.

16:00. Peruko ikuskizuna.

19:00. Bocabeats ikuskizuna.

ZIZURKIL

AZOKA BEREZIA

10:30-14:30. XXIII. Azoka Berezia. Baserriko produktuak eta arti-

sauak. Autobusa doan Bulandegi bideko errotondan edo Zubiaurretxotik, Pedro Mari Otaño plazara (10:15-15:00 artean). Zurjole elkar-terko kideek bost postu jarriko dituzte azoka berezian. Dinagu emakume sortzaileen kolektibokoak ere izango dira azoka berezian herriko artisauekin.

ASTELEHENA URRIAK 11

TOLOSA

BERAZUBIKO FESTAK

19:00. Patata tortilla lehiaketa.

23:00. La Jodedera.


ZINEMA



NORA

Larunbata (19:00 / 22:00),
igandea (19:30) eta
astelehena (20:30).

Amasa-Villabona, Gurea.



SPACE JAM: ARO BERRIAK

Igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.



D'ORTAGNAN ETA HIRU

MOSKETXAKURRAK

Igandea (17:00)

Amasa-Villabona, Gurea.



DESCARRILADOS

Igandea (19:00).
Tolosa, Leidor.



ANNETTE

Larunbata eta astelehena
(19:00)

Tolosa, Leidor.

OHARRA. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da honakoa. Jakina denez COVID-19ak unean uneko aldaketak sortu ditzake.



«Meliora latinezko hitz bat da, zerbait hobearen bila esan nahi du»

IÑAKI MUJIKA, MARKEL GALARRAGA, IVAN ROPERO ETA JOKIN IRAOLA
MELIORA TALDEKO KIDEAK

Leyre Carrasco

Pello Errota asteasuarraren bertsoari rock erritmoak gehituz kaleratu berri du lehen singlea eta bideoklipa Meliora taldeak.

Iñaki Mujika (Asteasu, 2002), Markel Galarraga (Zi-

zurkil, 1998), Ivan Roperio (Zizurkil, 1998) eta Jokin Iraolak (Tolosa, 1997) osatzen duten taldea da Meliora. Hiru urteko ibilbidea du, hain zuzen, eta pandemiak eragindako etetearen ostean, inoiz baino indar-



tsuago eta proiektu berriez gainezka dator oraingotan.

Nola elkartu zineten?

Ivan Ropero: Hasiera batean beste talde bat sortu genuen, baina talde hori bidean geratu eta ez zen aurrera atera. 2018. urtean, hain zuzen, beste proiektu bati hasiera eman genion Markelek eta nik. Instagram bitartez Iñaki aurkitu genuen, eta gu hiruok eta bajua jotzen zuen beste mutil bat elkartu ginen. Baina duela urtebete inguru bajua jotzen zen mutil hori atera eta Jokin sartu zen. Beraz, Meliorak irailean hiru urte bete ditu jada. Hiru urteko ibilbidea, hain zuzen, baina kontuan izan behar dugu pandemia ere tantean izan dugula.

«Meliorak irailean hiru urte bete ditu jada. Hiru urteko ibilbidea, baina kontuan izan behar dugu pandemia ere tartean izan dela»

Beraz, pandemia oztopo izan da Meliora hazten jarraitzeko?

I.R.: Bai, baina egia da pandemia aurretik kontzertu pare bat emateko aukera izan genuela; eskualdeko hainbat herrietako festetan, bereziki.

Meliora ezagun dugu eskualdean, baina non du jatorria taldearen izenak?

Iñaki Mujika: Asko gustatzen zaigun talde bat dago, Ghost izena du, eta talde horren album batek *Meliora* izena du. Hortik hartu genuen taldearen izena. Meliora latinezko hitz bat da, zerbait hobearen bila esan nahi du, hain zuzen ere.

Zein da zuen musika estiloa?

Markel Galarraga: Bariatua dela esango genuke. Azkenean, rock musikan eta munduan nahiko irekiak gara, baina batez ere hard rock-a edota heavy metal estiloak lantzen saiatzen gara, baita rock and rolla ere.

Musika bizia, ezta?

I.R.: Bai, baina tartean baladak ere jotzen ditugu. Ez gara musika estilo batean soilik zentratzen, denetik jotzen saiatzen gara.

Musika talde bakoitzak bere esentzia duela esaten dute. Zein da Meliora taldearen esentzia?

Jokin Iraola: Lehen aipatu bezala, estilo asko lantzen saiatzen gara. Hau da, ez daukagu estilo finko bat, eta azkenean, gure estiloa gure gustu guztien arteko nahasketa bat da; gustu horien arabera zerbait sortzen saiatzen gara.

M.G.: Hori da. Taldekide bakoitzak bere estiloa eta musika erreferentziak ditu. Oso desberdinak gara gure artean, eta zerbait desberdina sortzerako garaian horrek ere laguntzen du.

Zein instrumentu entzun daitezke Melioran?



I.P.: Nagusiki, bateria, gitarra, ahotsa eta baxua. Orain atera dugun single berrian teklatura ere sartu dugu, baina hori oso puntuala da.

Single berria aipatu duzue; ‘Pello Errotaria’, hain zuzen. Bere bideoklipa ere kaleratu berri duzue. Nor da Pello?

I.M.: Ni asteasuarra naiz eta nere herrian Pello Errota izeneko bertsolari ospetsu bat zegoen. Gainera, nire eskolak ere, herriko eskolak hain zuzen ere, bere omenez Pello Errota izena du. Euskal Abentura izena duen espedizio batera joan nintzen, eta horko lan bezala bertsio bat sortu behar genuen. Gaia *Nire herria* zen, eta ideia bezala liburu batetik bere bertso bat hartzea pentsatu nuen. Bertso hori ez da batere ezaguna, beraz, musika jarri nion. Abesti hori gordeta izan dut denbora luzez, eta aurreko urtean horren bertsio potente bat Meliorarekin egitea pentsatu nuen. Horrela sortu zen *Pello Errotaria* singlea.

Zer da bertan kontatzen duzuen?

I.M.: Pello baserri batean bizi zen. Behin, baserrira iritsi eta astoan gordeta zituen gauza guztiak lapurtu egin zizkioten. Pello haserre-

tu egin zen, eta gertakari hori salatzerako joan beharrean, horren inguruko bertso bat egin zuen.

Lan berria oholtza gainean eta zuzenean aurkezteko gogoz egongo zarete.

J.I.: Bai, noski. Larramendiko festetan jotzeko eskara egin digute, eta aurrerago Villabonako Rainbow tabernakoekin ere zerbait egitea aurreikusten dugu. Euren asmoa herriko plazan kontzertu batzuk eskaintzea da, eta gonbidapena luzatu digute. Beraz, oraingoz, bi proposamen horiek ditugu esku artean.

Ibilbide ez hain txikiko taldea, baina bai oihartzun handikoa. Zein proiektu dituzue etorkizunerako esku artean?

I.P.: Printzipioz, single hau bakarrik grabatu dugu Mutrikuko Ame estudioan. Esan beharra dago lehen

aldia izan dela estudio batera sartzeko pausoa eman dugula, eta horrek aurrera begira asko esaten du. Azaroan bigarren aldiz zapalduko dugu estudioa, eta beste lan batzuk grabatzeko asmoarekin gaudete. Hilabete bukaeran bigarren singlea aurkezteko asmoa dugu, eta datorren urtean diskoa amaitu eta hori kaleratu nahiko genuke.

«Azaroan bigarren aldiz zapalduko dugu estudioa, eta beste lan batzuk grabatzeko asmoarekin gaudete»

Kaiku, Tolosaldeko baserritar familien esnea



Kaiku proiektua abeltzain familiek osatzen dute eta duela 60 urte baino lehenagotik konpromiso sendoa du sektorearekin. Proiektu horretan denak berdin tratatuak dira, handiak zein txikiak izan. Horri esker, abeltzain txikiek beren jarduera garatzen jarrai dezakete, bai baitakite beren ekoizpena osoa jaso egingo dela baserriaren kokapen geografikoa eta ekoizten duten litro-kopurua kontuan izan gabe.

Tolosaldean bakarrik, 68 familia baino gehiago dira abeltzaintzan aritzen direnak. Maiz ahaztua izan den baina gure gizartearentzat eta hurbileneko ingurua-arentzat funtsezkoa den sektore honek landa-inguru-neko lanpostuen sorrera eta ekonomia zirkularra sustatzen ditu. Gainera, gazteek hirietara lan bila joateko joera ere murrizten du, herriak bizirik mantenduz.

Kaikuko abeltzain-familia horietako bat Idoia Zebe-rioren familia da. Idoiak, senarrarekin batera, Elduainen duten familia-ganadutegian egiten du lan.

Urteek aurrera egin ahala, Idoiak eta Ignaciok berri-kuntzak egin dituzte beren baserrian, eta, horri esker, jarduera profesionalizatu eta animalien ongizatea hobetu ahal izan dute. Besteak beste, tenperatura eta hezetasuna kontrolatzeko klimatizazio-sistema bat jarri dute. Sistema horrek ukuiluko giroa erregulatzen du eta behientzat optimoa izango dela ziurtatzen du; izan ere, behiek estresa jasaten dute 24 gradutik gora. El-duain inguruko zelaia zaintzen eta ereiten dituzte, beren bazka ekoizteko eta behiak modu erabat naturalean elikatzeke. Hala, paisaia sasitzarik ez izatea lortzen dute: «Azken urteetan, zenbait ganadutegi itxi egin di-

renez, antzeman dugu gure ingurua zikindu eta narriatu egin dela. Guk hura mantentzeko egiten dugu lan, baina garrantzitsua da baserri gehiago egotea denon artean garbi manten dezagun eta ez dadin sute-arris-kurik izan», dio Idoiak.

Idoiak eta Ignaciok bezala, Tolosaldeko beste abeltzain familia batzuek ere teknologiaren aldeko apustua egin dute, jasangarritasunaren, energia berriztagarrien eta animalien ongizatearen alde eginez. Aurrerapen hauetako batzuk eguzki-energiarekin funtzionatzeko plaka fotovoltaikoak, behiak eskariaren arabera jезде ahalbidetzen duen jезде-sistema robotizatua edo mindak bereizteko makinak dira.

«Erabat naturala den elikadura eta behien ongizatea funtsezko faktoreak dira kalitate oneneko eta zapore handieneko esnea lortzeko. Horrez gain, teknologiak gure lanean ingurunea gehiago errespetatzeko aukera ematen digu», ziurtatu du Jose Luisek, Tolosaldean bere anaiarekin bat lanean aritzen den Kaikuko abeltzainak.

Kaikuko familia-abeltzainen lanari eta ahaleginari esker, gertutasuneko produktua lortzen da, Tolosaldean bizi diren familiek ekoiztitakoa, uste baino askoz hurbilagokoa. Familia horiek, gainera, beren behiak modu natural eta arduratsuan zaindu eta elikatzen dituzte gure larreetako belarrez eta horrela gure ingurua zainduduz. QR kode hau eskaneatuz gero, zure inguruan zenbat ganadutegi dauden ikusi eta Kaiku KmO ekoizpen arduratsuko brik-esne bakoitzaren atzean dauden familiak ezagutu ahalko dituzu.

EZAGUTU



nortzuk garen **KAIKUKO BASERRITAR FAMILIAK** eta zein **HURBIL** gauden zugandik

IRABAZI URTEBETEKO ESNEA DOAN.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Giro eguzkitsuak jarraipena izango du. Goiz hotz baten ostean, goizean bertan behe-lainoa agertuko da berriro, baina eguzkiak segituan xurgatuko du eta zeru urdina eta eguraldi sano bezain ederra izango dugu egun osoz. Haizeak ipar-ekialdetik joko du eta tenperaturan ez da aldaketarik izango, maximoek 20-21 gradutan joko dutelarik goia.

LARUNBATA

Goizean eguraldi eguzkitsua izango dugu, non goi-hodeiren bat salbu, orokorrean zeruan urdina nagusituko den eta giro ederra izango dugun. Eguerditik aurrera ordea behe-hodeiak ugaritzen joango dira eta arratsalde erditik aurrera zerua nahiko zikin agertuko da. Hala ere, ateri eutsiko dio. Goizean haizea aldakor ibiliko da, arratsaldean iparraldekoa nagusituko delarik eta tenperaturak zertxobait behera egingo du, balio altuenak 19-20 gradutan errendituz.

IGANDEA

Goizean giro motela izango dugu. Hodeiak nagusi izango dira eta ez da baztertzen euri langar pixka bat egitea. Hala ere, lau tanta izango dira eta gehienez ateri eutsiko dio. Eguerditik aurrera hodeiak saretu egingo dira eta os-tarte politak zabalduko dira. Haizeak iparraldetik joko du eta tenperatura beste pixka bat jaitsiko da, 17-19 gradutan joaz goia.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

URRIAK 8, OSTIRALA
IBARRA

Egunekoa. Eurne mujika Martinez.
Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

URRIAK 9, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Maria Jose Santamaria.
Nafarroa etorbidea, 2.
943 65 46 10.

URRIAK 10, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Marta Olarreaga.
Martin J. Iraola etorbidea, 10.
943 67 24 38.

URRIAK 11, ASTELEHENA
TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2.
943 67 01 28.


**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.**

IRAGARRI HEMEN ETA ESKUALDEAK BUELTATUKO DIZU

JARRI ZURE IRAGARKIA ATARIAN
publi@ataria.eus / 661 678 818

* Atarikideentzat eskaintza bereziak

* Itzulpena eta diseinua doan





AKTUALITATEA · EUSKAL HERRIA ZUZENEAN · KULTURA DIGITALA · BIZIMUSIKA

ZUZENEAN / NAHIERAN







[LTD, Euskaltei]

#NikHamaika

hamaika.eus



**2 eta 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuak terraza
zabal eta eguzkitsuak ikuspegi paregabeak mendietara
zatoz eta erreserbatu zure gustuko pisua!**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA